KRITIKA ENARA GARMENDIA

Lau ordutan irensteko '72 ordu'

TITULUA: **'72 ORDU'** EGILEA: **KEPA IRIBAR** ARGITALETXEA: **EREIN, 2022**

IRAKURLE amorratuak diren beste hainbesteri bezala, niri ere liburu berriek garrasi egiten didate, atentzio eske. Ia ehun liburu ditut nire apaletan, hautsa bilduz, nik noiz irakurriko zain. Baina bada zerbait liburu berrietan, imanak bagina bezala erakartzen nauena. Oraindik jende askok irakurri ez eta aurreiritzirik ez izatea, nobedadearen irrika, liburu berrien usain berezi hori... Ez dakit, baina bada zerbait. Horixe gertatu zait Erein argitaletxeak atera duen Kepa Iribarren *72 ordu* liburuarekin. Sinopsia irakurri eta harrapatu egin ninduen, eta hori, liburu berriaren usainarekin nahasita, nahikoa izan zen zain nituen beste hainbat alde batera utzi eta honen irakurketari ekiteko.

Izenburuari jarraiki, 72 orduren bueltan gertatzen da ia istorio guztia. Aitor Letamendia detektibea Getariako udaletxean jasotzen duten hilketa mehatxu baten detektibe lanetan jarriko dute. Anonimoki bidalitako mezu honek 72 ordu ematen dizkie hilketa saihesten saia daitezen udaletxeko langileei zein Ertzaintzari. Hasiera honekin Iribarrek amua jartzen digu liburuan interesa gaitezen, baina gero gertatzen direnek bere hitzen barruan harrapatuta uzten gaituzte liburua amaitu arte. Trama konplikatuz joango da, inork espero ez duen buelta bat eman eta ordura arte ikusitako guztia buruz behera geldituko da. Erantzun zuzena zein izango den asmatu nahian, irakurleok ezingo diogu irakurtzeari utzi, ezusteko amaierara iritsi arte. Zalantzarik gabe esan dezaket inoiz irakurri dudan hitzartzerik hoberenetakoa du nobela honek: istorioa amaitu zela zirudienean, sekula ahaztuko ez dudan esaldi batek aho zabalik eta barrez utzi ninduen.

Gainera, baditu Kepa Iribarrek aipatzeko moduko beste bi dohain ere. Alde batetik, gertakizunetik atera gabe, momentu historiko ezberdinei buruz hitz egiten digu, gure interesa pizteaz gain agian ezezaguna zaigun informazioa erantsiz. Nabari da asko informatu dela Magallanesek hasi eta Elkanok amaitu zuen mundu-birari buruz eta ikasitako hori irakurleari transmititzen jakin du. Baita herritarrentzat zenbat garrantzi duen ere, gaur egun ere ekintza handi hura ospatzen baita Getarian. Bestalde, paisaiak deskribatu eta erakargarri egiten dizkigu istorio guztian zehar. Kostaldea, eta batez ere, Getaria bisitatzeko gogoz uzten zaitu, bertan irakurri dituzun paisaia eta herri giro eder hori ikusi eta idazleak deskribatzen dituen txoko eta etxe guztiak deskubritu nahian.



"Benetan liburu borobila da eta uda honetan zer irakurri erabaki ezinik dauden guzti horiei gomendatuko nieke"

Ordu batzuk libre izanez gero jarraian eta pausarik egin gabe irakurri daitekeen nobela poliziakoa da hau eta intriga, suspensea eta pixka bat pentsatzea gustatzen zaien irakurle haientzat guztiz gomendagarria. Euskara erraz baina ederrean idatzia dago: gure hizkuntzaren balioa ikus daiteke bere hitzetan, baina honek ez du inongo momentuan irakurketa etenarazten eta kostaldeko hainbat hitz berri ikasteko aukera ematen dio irakurleari.

Benetan liburu borobila da eta uda honetan zer irakurri erabaki ezinik dauden guzti horiei gomendatuko nieke. Iribarren lehen liburua izanik, gehiago aterako dituen jakin nahiez utzi nau eta ez dut zalantzarik egingo beste libururen bat argitaratzen duenean apalean zain ditudan liburuak berriz alde batera utzi eta hari eskua botatzeko.

SALDUENAK

Fikzioa

1. 31 ipuin
Anton Txekhov. Elkar.

2. Azken etxea
Arantxa Urretabizkaia. Pamiela.

3. Munduari bira eman zion ontzia
Joseba Sarrionandia. Pamiela.

4. Ez erran inori
Maddi Ane Txoperena. Elkar.

5. Lumbung
Batzuen artean. Txalaparta.

6. Amaiur! Libera State
Asisko Urmeneta. Erroa.

Ez Fikzioa

1. Miñan
A. Arzallus, I. Balde. Susa.

2. Mandamentu hipermodernoak
Iñigo Martinez. Elkar.

3. Erradikalak ginen
A. Labaka, B. Egizabal. Ganbila.

4. Bestaldean
J. Dorai, E. Prat. Txalaparta.

5. Ongi etorri euskal mitologiaren mundu magikora
Batzuk. Mitologik Basoa.

6. Antzerkia bide
S. Sancho, L. Garcia. Gaumin.

ITURRIA: Elkar.